



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Iparraldeko bigarren mailako
euskarako ikasleen modelo
kulturalak eta eredu sexistak**

Idoia Rodriguez Mondragon

95-102 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.12>



Iparaldeko bigarren mailako euskarako ikasleen modelo kulturalak eta eredu sexistak

Rodriguez-Mondragon, I.
Université Bordeaux Montaigne, Euskal Herriko unibertsitatea,
rodriguez.m.doia@gmail.com

Laburpena

Generoa eraikitako kontzeptua da. Alta, generoek gizartea antolatzen dute, indarkeri sozialak eta estereotipoak bermatuz. Gizakiak modelo zehatz batzuei erantzun behar du bere ingurumenean integratua izateko. Marketinean eta kulturean, proposatutako ereduak sexismoan oinarrituak dira.

Nerabeak kultura kontsumitzaile handiak dira eta haien modeloak zein diren aztertu da. Ber maneran, haien genero berdintasunari buruzko ikuspuntua ikertu da.

Hitz gakoak: Generoa, estereotipoak, nerabea, kultura, sexismoa.

Abstract

Genders are a man-made concept. However, they structure the society, guaranteeing social violences and stereotypes. People has to answer to specific example to be integrated in their environment. In marketing and culture the models offered are based on sexist examples.

Teenagers are great culture consumers and we have analysed who are their models. In the same way, we have searched what is their point of view about gender equality.

Keywords: Gender, stereotypes, teenager, culture, sexism

1. Sarrera eta motibazioa

Pierre Bourdieuren arabera¹, sexu harremana, dominazio harreman sozial bat da. Femeninoa desio maskulinoaren tresna da, menpekotasunean murgiltzen da. Organo sexualen eta anatomiaren ezberdintasunak, sozialki generoak sortzea justifikatzen du eta gizartearen zatiketa desberdintasun anatomikoan oinarritua da. Honek alde batetik identitate batzuk ezin direla izan suposatzen du. Bestalde, generoak, sexua, gutizia eta praktika sexualen arteko lotura zuzen bat suposatzen du.² Orduan, gizarte sistemak heterosexualitate bortxatu bati pusatzen gaitu.

Marketinak sexualizazio goiztiarrak inposatzen ditu: ninientzako bodyek mezu ezberdinak dituzte sexuak argiki desberdintzeko. Neskak “politak, kaskagogorak, irringarriak, goxoak, gormantak,

1 Bordieu, P, (1999). *La domination masculine*, Editions du Seuil, Paris, p.37

2 Butler, J, *Trouble dans le genre* La découverte, 2005, Paris, p.84

maiteminduak, ederrak, eleganteak” direlarik, mutikoak “kuraioak, indartsuak, arroak, beldurgabeak, azkarrak, abilak, tematuak, lasaiak” dira.³ Gizartea bitan zatituz bi aldiz gehiago saltzea ahalbidetuko du. Kulturak ere modelo sexistak bermatuko ditu. Gizartearen proiektzioak haurtzarotik estandar batzuetan mugatuak dira. Catherine Monnoten erranez, neskek ukaiten ahal dituzten proiektzio kulturalak mutikoenak baino anitzagoak izaten ahal dira. Baina, diskurtso, aktibitate maskulino batekin bat egiten baldin badute, moztura sinboliko hori ezaugarri femenino batzuk landuz orekatu beharko ditu⁴. Adibidez, Lara Croft bezalako pertsonaia bat kirolaria, gerla zale, borrokari trebea baldin bada, pertsonaia femenino ederra, gaztea eta sexualizatua da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Soziologian, Silvia Federiciren arabera⁵, Marxen klase borrokak generoak ahanzi ditu eta ikuspegi maskulino batetik sortua izan da. Orduan, nahiz eta Marxek harreman patriarkalak salatu, ikuspuntu maskulino bat inposatzen du kapitalaren analisisia unibertsal bat proposatzeko. Mundu kapitalista erortzen delarik, eta ezin duelarik gehiago gizonen beharrei erantzun, emazteak errudunak bezala kontsideratuak dira, Virginie Despentesen arabera⁶. Sistema kritikatzeko baino, gizonen emazteen emantzipazioa kritikatzeko nahiago dute: emazteek ez dute gizon zaharrek sortutako ordre soziala mantentzen.

Michel Foucaultentzat⁷, sexua botere harremanak iraunkor arazteko nozio bat da. Boterea eta sexua lotuak dira. Kultura erreferentziei estrapolatuz, maskulinitatea botere eta indar erreferentzia da eta elementu femeninoek menpekotasuna eta ahulezia erakusten dute.

Neska eta mutikoak ez dira bakarrik haien aisialdi produktuen hautuetan ezberdintzen baina haien jostatzeko maneran ere. Mutikoentzat agresibitatea, giharren indarra, akzioaren bilatzea nagusitzen baldin bada, lasaitasuna eta oreka agertzen da nesken aldetik. Gianini Bellotiren⁸ azterketak moldatze sozialak aipatzen ditu ezberdintasun horiek aipatzeko: gazteek helduen itzaropenei erantzuten dute. Haien erreferente kulturalak haien heldu garairako baldintzatzen ditu.

2010ean, Frantses estatuan egindako Ipsos⁹ zundatzeak emakume eta gizonen arteko berdintasuna galdekatu zuen, nerabeak haien gurasoak baino atzerakoiagoak zirenetz jakiteko. Zundatzearen emaitzek estereotipoak heldu eta nerabeek partekatzen zituztela erakutsi zuten. Mutikoek sexismoa neskek baino barnatuagoa zuten. Ber maneran, neskek kontzientzia hartze orokorrago bat erakusten zuten eguneroko sexismoari buruz (etxeke lanen banaketan, sexismoaren biktimak izatea...). Horrez gain, duela hamar urte nerabeen %2 baztertuak sentitzen zirela adierazi zuten eta taldearekin bat egiteko behar handia erakusten zuten.

3 Petit Bateau kanpaina 2011an.

4 Monnot, C, *Petites filles d'aujourd'hui. L'apprentissage de la féminité*, Paris, Autrement, 2009

5 Federici, S, *Le capitalisme patriarcal*, Paris, La fabrique, 2019.

6 Despentes, F *King Kong théorie*, Paris, Grasset, 2006

7 Foucault, M *Histoire de la sexualité*, Gallimard, 1976

8 Gianini Beloti, E, *Du côté des petites filles*, Des femmes, 1974

9 <https://www.ipsos.com/fr-fr/parite-hommes-femmes-les-adolescents-seraient-ils-plus-retrogrades-que-leurs-aines>

Datu horien bidez, 2021eko gazteen modeloak ezagutu nahi ditugu. Kultura kontsumoa dikotomia batean oinarritzen da eta gazteek kode sexistak bereganatu dituzte. Orduan, lehenik, nerabeen ikuspegia genero estereotipoei buruz argituko da. Bigarrenik, ikasleen modeloak ezagutu nahiko dira.

Honen bidez, Iparraldeko (Lapuri, Baxe Nafarroa, Zuberoa) bigarren mailako ikasle elebidunak galdekatuak izan dira. 2020ko apirilaren 6ean zundatze bat zabaldua genuen Iparraldeko bigarren mailako euskarako ikasle guztiei, haien irakasleen bidez. 2020ko apirilaren 17an, 121 ikaslek erantzun zioten. Zundatzea anonimoa da, adina eta klasea ez dira zehaztuak. Ikasleek erantzun bat baino gehiago emateko aukera zuten eta batzuek bi proposamen egin dituzte galdera batzuentzat. Ikasleak dudak dituela eta egoeren arabera erantzuna ez dela unibertsala erakusten du.

3. Ikerketaren muina

Ikerketak hiru parte nagusi ditu: lehenik, bost galderen bidez, ikaslea eta taldearen elkar eragina aztertu nahi izan da. Ondotik, haien ikuspegia genero estereotipoei buruz galdekatu zaie zazpi galdera pausatuz. Bukatzeko, bi galderak, ikasleen heroi maiteenak zein diren aztertu dute.

3.1. Ikaslea eta taldearen elkar eragina

Ikasleei pausatutako lehen galdera beraien sexua identifikatzea izan da. Ehun eta hogeita bat ikasleren artean hirurogeita zortzik sexu femeninoa dute eta berrogeita hamahiruk maskulinoa dute.

Gure gizartean toki bat ukaiteko besteak bezala egitea sinpleago ote den galdetua izan zaielarik, taldearen %66,1 baietz erran du.

Taldeaz desberdina izatea lanjerosa izaten ahal denetz galdetua izan zaie eta %57 baietz diote. Nerabeak partekatuak dira. Normak garrantzia du eta taldearen arauetatik at joatea arriskutsua bezala agertzen da.

Baina, ikasleen %90,1 ikaskideez desberdina izatea xantza bat bezala adierazten dute.


Ikasleen bi herenek ez dute haien burua beste ikasleetaz desberdina ikusten. Orokorrean, ikasleak norman sartzen direla diote.

3.2. Ikasleak eta genero estereotipoak

1. irudia: genero desberdintasunak

Uste duzu neska edo mutiko izateak inegalitateak sortzen ahal dituela? (penses-tu qu'être garçon ou fille peut créer des inégalités?)

121 réponses



Bigarren parte batean ikasleei diskriminazio sexistak aipatuak izan zaizkie. %69,4 neska edo mutiko izateak diskriminazioak sortzen dituela diote eta %32,2 ezetz. Hemen bi ikaslek bai eta ez erantzun dute. Xehetasunak begiraturaz, nesken %78 eta mutikoen %64,4 pentsatzen dute desberdintasunak badirela.


Neskak eta mutikoak berdinean hezten diren bezala jakin nahi delarik, %40 baietz diote eta %70,2 ezetz. Lauek bi erantzunak hautatu dituzte. Orokorrean ikasle gehienek desberdintasunak ikusten dituzte gurasoen heziketaren aldetik. Nesken %78,18 eta mutikoen %62,22 estimatzen dute gurasoek ez dituztela manera berdinean hezten.

Aldiz, helduek neska eta mutikoak berdinean tratatzen dituzten bezala galdetua zaielarik, nahiz eta desoreka bat izan, tarte txikiagoa dela ikus daiteke. %44,6 helduek mutikoak eta neskak berdinean tratatzen dituztela eta %58,7 ezetz estimatzen dute. Haien artean, lauek bi erantzunei positiboki erantzun dute. Nesken %60 eta mutikoen %38 ezetz estimatzen dute.

2. irudia: nerabeak eta etxeko lanak

Etxean, uste duzu gizon eta emazteek garbiketa kopuru berdina egin behar dutela? (A a maison, penses-tu que les hommes et les femmes doivent faire la même quantité de ménage?)

121 réponses



Etxeko garbiketen eta parekidetasuna aipatua izan da. Ikasleen %72,7 manera parekidean egina izan behar dela, %33 dependitzen duela eta %4,1 ezetz estimatzen dute. Hor, lauek bai eta dependitzen du erantzun dute. Nesken % 71 eta mutikoen %64,4 baietz erantzun dute. Gehiengoarentzat etxeko lanak orekatu behar dira.

Emazte bat zer den galdetua izan da. Ikasle guztiek erantzun bat proposatu dute. Hogeita bat ikaslek ez dakitela adierazi dute. Hogeita hemezortzik, erantzun sexista bat proposatu dute. Hots, emazte izatea askotan amatasunari edo bere organo sexualei lotua izan da. Fisikoa, zintzotasuna, ahulezia, nagusitu diren adjektiboak dira. Aldiz, berrogeita hamar erantzun ez sexista agertu dira: askok libre izatea dela adierazi dute, gizonak bezala tratatuak izatea edo nahi dutena egitea aipatua izan da. Batzuk emazte izatea emazte sentitzea dela aipatu dute eta batek ez zuela sexuarekin harremanik zehaztu du. Besteek emazte izatea zaila zela eta berdintasunarentzat borrokatu behar zela adierazi dute. Bukatzeko hamaikak erantzun ez osatuak proposatu dituzte.

Gizon bat izatea zer den galdetua izan da. Ehun eta hogeita bat erantzunen artean, hogeita batek ez zekitelako erantzun dute. Berrogeita zortzik erantzun sexistak proposatu dituzte: haien sexua, indar fisikoa, gorputz maskulinoa aipatuak izan dira, baina ere familiaren ardura, lanbidea, eskuekin trebea izatea, heldutasun falta zehaztuak izan dira. Hogeita hemezortzik erantzun ez sexista bat proposatu dute, gutxi gora behera emazteei buruzko erantzun berdinak ziren: gizon sentitzea, libre sentitzea, nahi dena egitea... Bukatzeko hamahiruk erantzun ez osatu bat proposatu dute.

3.3. Ikasleak eta haien ereduak

Lehenik, ikasleei haien pertsonaia maiteenak nor diren galdetua izan zaie (filma, marrazki bizidun, liburu, komiki... artean). Ikasleen %20 ez dute erantzun zehatzik eman, ez zekitelako. Ikasle batek sexurik gabeko pertsonaia bat aipatu du Happy, *Fairy Tail*-en. Orotarat, ehun eredu maskulino (Harry Potterreko pertsonaiak nagusitzen dira) eta berrogeita hamazazpi pertsonaia femenino aipatuak dira. Mutikoek berrogeita hamasei pertsonaia maskulino eta zazpi femenino aipatu dituzte. Neskek berrogeita lau pertsonaia maskulino eta berrogeita hamar pertsonaia femenino aipatu dituzte.


Heroi gehienak serietatik (*Stranger things, Elite, Riverdale...*) superheroi kulturatik (*Superman, Wonder woman, Spider man, Super girl...*), liburuetatik (*Hunger games, Harry Potter...*) etortzen dira. Zaila da aipatutako pertsonaiak filmetatik edo liburuetatik etortzen diren argiki jakitea, liburuak askotan arrakastatsuak diren filmak bilakatu direlako. Adibidez *Harry Potter* saileko pertsonaiak hamazazpi ikaslek aipatu baldin badituzte zein euskarriri erreferentzia egiten dutenetz ez dakigu. Orokorrean, *Harry Potter*-eko pertsonaiak kenduz, musikariak bi aldiz aipatuak izan dira, liburuak hogeita zortzi aldiz, filmak hogeita hamar aldiz eta serieak berrogeita bat aldiz. Ikasleek kontsumitzen duten produktu nagusia seriea baldin bada, literatura ez dute baztertzen eta filmek duten garrantziaren mailan dira.

Guztirat, laurogeita hamasei pertsonaia amerikarrak dira (edo ingelesak, Harry Potterren kasuan), hogeita lau Asiatikoak (*Dragoi bola Z, Naruto, One Piece, Fairy tale, Miazaki* filmak...) dira eta beste hogeita lau frantsesak (*Tuches, Louis de Funes, Kev Adams*) dira. Hamahiru beste kultura batzuetatik etortzen dira (Batez ere, Espainiar eta belgikar kultura *Casa de Papel, Elite* eta *Tintin*-ren bidez). Euskal kulturari ez da erreferentziarik eginga izan.

3. irudia: Zergatik nerabeek pertsonaia bat maite duten?

Filma, marrazki bizidun, liburu komiki... baten pertsonaia maite duzularik zergatik da?
(Pourquoi aimes-tu un personnage de film, dessin animé, livre, bd...?)

121 réponses



Bukatzeko, nerabeek pertsonaia bat maite baldin badute haien fisikoa, nortasuna edo bere abenturei lotua zenetz galdetu zaie. Taldearen %62,8 pertsonaiaren nortasunari lotzen dute, %35,5 bizitzen dituen abenturei eta %2 fisikoari. Pertsonaia mamitsuak, indartsuak eta nortasunarekin popularrenak dira. Haien modelo erreferenteak bilakatuko dira. Fisikoa eta bizitzen dituzten abenturak baino gehiago pertsonaiaren izaerak du erakargarritasuna sortzen.

4. Ondorioak

Ondorioz, zundatutako ikasleak presio eta kode sozialen menpe dira. Emazte bat eta gizon bat zer diren definitzean, ikasleen ikuspuntuak oso ezberdinak dira. Erantzun batzuk sexistak eta estereotipatuak baldin badira, beste batzuk aitzindariak dira.

Nerabe askok ez baldin badute heroi zehatzik (24ek), erantzun dutenen %69,76 pertsonaia maskulinoak aipatu dituzte. Heroi maskulinoak mutiko eta neskei zuzentzen baldin bazaizkie, eredu femeninoak batez ere neskek aipatu dituzte. (Nesken %53,2 heroiak femeninoak dira eta mutikoen %9,7). Eraitza horiek, eredu maskulinoak unibertsalak bezala kontsideratuak direla erakusten dute. Aldiz, pertsonaia femeninoa, neskei zuzentzen zaiela agertzen da.

Bukatzeko, gehien agertzen diren erreferentzia kulturalak Estatu Batuarren, Asiatikoak eta Frantsesak dira. Literatura, mangak maiz aipatuak dira, baina zinema eta seriek gaina hartzen dute. Aldiz, euskal kulturaren aztarnaik ez da agertu zundatuak izan diren nerabeen artean.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Artikuluaren emaitzak Ipsos zundatzearekin konparatuz, hamar urtez aldaketa gutxi agertu direla erakusten dute.

Genero estereotipoei aurre egiteko, kontzientzia hartze orokor bat behar da. Iritzi publikoa oinarrizkoa baldin bada, politiken indarra ezinbestekoa da. Frantses lurraldeko aktualitateak eztabaida gorriak erakutsi ditu sistema patriarkalaren inguruan. Kulturalki, 2020ean, Roman Polanskiren saritzea Cesarretan kritikatu izan zen bortxaketa afera batean murgiltzen zelako. Politikoki, Gerald Darmanin barne ministerio izendatua izan da, nahiz eta jazarpena eta bortxaketaz akusatua izan.

Orduan, genero estereotipoak eta sexismoa ez dira bakarrik gizartea bi kategoriatan kokatzeko tresnak. Horien bidez, ordre sozial patriarkal bat mantendua da. Erabakiguneetan kokatzen direnak inpunitatean aritzen ahal dira, biktimak menperatuz. Marketina eta kultura dominazioaren tresna nagusiak dira: kategoria sozial batzuk estigmatizatuz eta beste batzuk goraipatuz, gaztarotik, estereotipo sexistak mantenduak dira eta bakoitza rola artifizial batean mugatua da.

6. Erreferentziak

Bilbao B, Ezkurdia, G, Perez Urza, K, (2006). *Curriculum eta testuliburu-erakundeak*, Jakin N°153.

Bourdieu, P, (1999). *La domination masculine*, Editions du Seuil, Paris.

Butler, J, *Trouble dans le genre* La découverte, 2005, Paris, p.84

Bousquet D, Vouillout F, Collet M, Fourtic Y (2016). *Faire des personnels enseignants et d'éducation les moteurs de l'apprentissage et de l'expérience de l'égalité*, Haut conseil à l'égalité entre les femmes et les hommes Formation à l'égalité filles-garçons, Rapport n°2016-12-12-STER-02.

Despentes, F *King Kong théorie*, Paris, Grasset, 2006

Federici, S, *Le capitalisme patriarcal*, Paris, La fabrique, 2019.

Foucault, M *Histoire de la sexualité*, Gallimard, 1976

Gianini Belotti, E, *Du côté des petites filles*, Des femmes, 1974

Monnot, C, *Petites filles d'aujourd'hui. L'apprentissage de la féminité*, Paris, Autrement, 2009

Ranchon G, (2016). *Une didactique de la langue, de la culture et du genre: le manuel FLE, discours et réalisations*, Université de Lyon.

7. Eskerrak eta oharrak

- Ikerketa 2017an hasitako *Genero estereotipoak euskal haur gazte literaturan eta haien eragina Iparraldeko bigarren mailako eskoletan* tesiaren barne sartzen da.
- Aurelia Arcocha eta Gurutze Ezkurdia, tesia zuzendariak eskertzen ditut haien laguntza, kontseilu eta bideratzeentzat.

- Zundatzea konfinamendu garaian egina izan da, orduan ez da harreman zuzenik izan ikasleekin. Galdetegia Ipar Euskal Herriko irakasleen bitartez banatua izan zaie ikasleei. Nire lankideak eskertzen ditut ikerketa aitzinarazteko lagundu nautelako. Bide berdinean, erantzuteko denbora hartu duten ikasleak eskertzen ditut, haiei esker datu berriak ateratzeko aukera ukan dudalako.